

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ezker Iraultzailearen aldizkaria

www.euskalherriasozialista.net

72 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

Preso eta iheslariak etxera

Errepresiorik eta mendeku politikarik ez!



Kaleko borroka
da bidea

- 2. EA Erako Estatus politiko berria
- 4. Mexiko eta AMLOren garaipena
- 6. Catalunya
- 8. Preso eta iheslariak etxera
- 10. Franco hobitik ateratzea ez da nahikoa
- 12. Mitin internazionalista Bartzelonan
- 13. Maravillas aurrera
- 14. Borroka Sindikala

EAErako estatus politiko berria:

EAJrekin eginiko inolako akordiorik ez gaitu Euskal Herriaren erabakitze eskubidera hurbilduko

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

espainiarrarekin berdinetik berdinerako tratua izan dezan.

Maiatzaren 23an EAJk eta EH-Bilduk Estatutu Politiko berriaren alde bozkatu zuten Eusko Lege Biltzarrean. Egun berean, arratsaldean EAJk Rajoyren gobernuaren aurrekontuak babestu zituen, 155a indarrean zela. EAJk argi utzi ziotuen bere asmoak.

Arnaldo Otegia behin baino gehiagotan esan du estatus berriaren inguruko akordio hori historikoa dela: “Azken 40 urtetan ez da inoiz horrelako akordiorik egon herrialde honetako bi familia abertzale handien artean”. Abuztuaren 27an Radio Euskadira eginiko elkarrizketa batean, Arnaldo

Otegia planteatzen zuen eskuin eta ezker euskaldunak Estatuko politikei heldu behar diela subiranotasuna berreskuratzeko eta horretan prest daudela EAJren Gobernu babesteko. “Hor bai, begi bistan dago egoera berezi batean egongo ginela neurri bereziak eskatuko lituzkeena eta, batez ere, ardura berezia denon aldetik”. Irailaren 8an Gernikako arbolaren aurrean berriaz eskatu zuten eragile politikoei eta baita eragile sozial eta sindikalei erantzukizun eta esku zabaltasunez jokatzeko.

Arnaldo Otegia planteatzen du bi familia abertzale handi daudela, bata eskuinekoa eta bestea ezkerrekoa. Baina ez du azaltzen horrek esan nahi duena, hau da, EAJren

klaseko izaera eta horrek dituen inplikazioak. Hor dago gakoa eta hor datza akordioaren benetako izaeraren koska.

Radio Euskadira elkarrizketan horrela laburbiltzen zuen akordioaren edukia: “Nazio bat garela, erabakitze eskubidea dugula eta eskubidea dugula nahikoa botere politiko edukitzea jendearen arazoei aurre egiteko. Zein dira jendearen arazoak? Ba, uda honetan ikusi ditugunak... Migrazioa, eraso sexistak, jendearen bizitzetan segurantzaren falta, ez daude lan baldintza duinak eta lan munduaren prekarizazio kezkarri bat dagoela... Nola egin aurre arazo hauei? Botere soberanoarekin, hau da, egin nahi ditugun politikak hemen erabakitzea baimentzen duten instrumentuekin”.

EHBilduko koordinatzaile nagusiak subiranotasunak helburu praktikoa dela planteatzen du: jendearen arazoak konpontzea. Baina argi baino argiago dago EAJ dela Euskal Herrian “jendeari”, langile klaseari, arazo horiek sortu izanaren arduradun nagusia. Murrizketa sozialaren eta pribatizazioen politikak aplikatu ditu, lan erreforma Euskal Herrian, enplegu prekarioa... etengabe egon da euskal patronalaren interesen zerbitzura.

EAJri arazo horiek konpontzea interesatzen bazaio, zergatik nahiago izan zuen gobernu PSEren osatu gutxiengoan, EHBilduren

planteamendu ekonomikoak ez zirela bideragarriak argudiatuz? Zergatik onartu ditu EAEko aurrekontuak bi aldiz PP eta PSEren bozkekin, eta beste bitan Rajoyren gobernuak? Urte hauetan behin eta berriz atera gara kalera EAJk aplikatu dituen politiken aurka. Badakigu oso ondo zein alderdi den: Heziberrirena, murrizketa soziala, pribatizazioa, AHT eta Erraustegiarena, ustelkeriarena eta ate birakariarena.

Hori da euskal eskuinaren alderdi izateak esan nahi duena. Euskal burgesia handiaren erakunde politikoa da, bere interesen babesle leiala. Ezker Abertzaleko buruek publikoki aurpegiratu beharko liokete hori guztia, are gehiago EAJk eskua eskainiko balio. Baina horren ordez, beraiek dira eskua eskaintzen diotenak.

EAJ alderdi independentista al da?

Kurtso hasieran EAJren buruzagi batzuk independentistak direla esanez atera dira, baina ohartarazi dute frenua bota behar dela. Urkulluk dio: “EAJko kide gisa, ados nago egin denarekin; lehendakari eta arduradun instituzional gisa, euskal gizarte pluralaren gehiengo bat ordezkatzeko saiatzeko ardura duena, gizartearen osotasunaren onura begiratu behar du”.

Urkulluk argi utzi du bere helburua orain Madrilen bideragarritasuna eta ibilbidea edukiko duen testu bat egitea dela, eta horregatik akordioa “zabaldu” egin behar dela dio, hau da, diluitu bere gobernu sozioak kontentatzeko. Gasteizko parlamentuan 5 jurista izendatu dituzte, alderdi bakoitzak bat. Tartean da PPko Jaime Ignacio del Burgo, beste askoren artean Nafarroa eta EAE banaturik egotearen erantzule nagusietako bat. “Alditu” horien lana, printzipioz, datorren urteko ekainerako Euskal Herriko erabakitze eskubidea konstituzio barnean kokatzea litzake.

Zein interes du EAJk estatus politiko berri honetan? Ez da inolaz



ere, asko esanagatik, erabakitze eskubidea. Buruzagi guztiak erabak ados daude, EAJk ez duela alde bakarreko biderik hartuko pentsatzean. Beraiek bai, ondo ikasi dute Catalunyaeko esperientziatik, eta ez dute errepikatu nahi klase dominatzailearentzat ekarri duen desastre hori.

EAJk hainbat interes ditu joarekin jarraitzeko. Alde batetik, irudi publikoa eta propaganda dago, beste auzietatik begirada kentzen duena. Bestalde, interesatu lekietan konpetentzien transferentziak eta estatu-boterearen banaketa, ez jendearen arazoak konpontzeko, konpetentzia horietatik negozioa egiteko baizik. Baina badago interesatzen zaion beste gauza bat, ez dena inolako huskeria. Ezker Abertzalea domestikatzea da, oposizioa isilaraztea, bere hanka azpian lotzea eta, Arnaldo Otegia dioen bezala, ardu maila berezia eduki dadila demobiliza dezaten eta EAJren aurka doan edozein borroka isilarazi dezaten edota murrizketen gobernu batera sar daitezen.

Arduratsu eskuinarekin?

Ezker Abertzalea ez dela nahikoa indartsua Euskal Herriaren erabakitze eskubidea eta gizartearen eraldaketa sozialista lortzeko esatea erabat oker dagoen planteamendua da. Ikuspegi hori sortzen da politika instituzioen lau pareten artean itxirik ikusten denean. Langile klasearen indarra gutxies-tera eta konfiantzarik ez izatera eramaten du. Ezker Abertzalearen zuzendaritzak programa iraultzaile bat defendatuko balu, EAJri moztarokoa kentzetik hasiko litzake, Gasteizetik, Madriletik edo Bruselatik datozen austeritate politiken aurkako borroka gogorra antolatuz; langile klasea eta gazteria inspiratuko lituzke saltzen ez den eta benetako alternatiba osatzen duen erakunde demokratiko, borrokalaria eta iraultzaile baten eredu eman. Euskal Herriko langile klaseak eta gazteriak badaukate nahikoa indar autodeterminazio eskubidea lortzeko eta politika kapitalistekin amaitzeko.



MEXIKO AMLOren garaipenaren ondoren

Langile klasearekin edo kapitalistekin



CARLA TORRES
*Izquierda Revolucionaria
México*

PRIk eta PANek zortzi hamarkadatan sostengatu duten erregimen politikoa amaitu da. Joan den uztailaren 1ean MORENAk eskuraturiko garaipen itzelak masa mexikarren aldaketa nahi irmoa adierazten du. Etapa politiko berri bat hasi da. Burgesiaren sostengua izan diren alderdiek porrot itzela jasa dute eta ezkererako biraketa nabarmena eman da langile klasearen, gazteriaren, nekazarien eta erdi mailako geruza garrantzitsuen artean.

Eskuinaren krisia

Erreakzioari orain dela bi hilabete emandako kolpearen ondoren, inork ezin du zalantzan jarri zapalduak

gai ez garenik gure aldarrikapenak ezartzeko. Ustelkeriari, klientelismoari eta errepresioari esker azken 70 urtetan hegemonikoa izan den PRI ahalguztiduna zapalduz gertatu da. 2012ko hauteskundeetan 20 estatutan irabazi zuen eta 2018an bakar batean ere ez. PAN ultra eskuindarrak ere porrot gogorra jasan zuen, eta gainera barnean zaitiketa handiak jasaten ari da. Bestalde, PRD agerian geratu da eta gogor zigortua izan da. Urteetan zehar amore emateak erregimenaren beste alderdi batean eraldatu dute.

Mexikoko burgesia zerbaitegatik bereizi izan bada, funtsezko eskubide demokratikoekiko duen mespretxu handiagatik izan da. Pentsatzekoa zenez, ez diete uko egingo beren planei, eta mota guztietako mehatxuak eta maniobra egiten ari dira ez dadin ezer alda-

tu. Trantsizio baketsuaz hitz egiten duten bitartean, kapitalisten agenda aplikatzeko presionatzen dute. Noizbehinka, AMLOk bere programako atal hau edo bestea betetzeak ekarriko lukeen kolapso ekonomikoaz ohartarazten dute. Beste batzuetan, berezkoa duten hipokresia agertuz, gobernuaren etorkizunaz negoziatzen saiatzen dira. MORENAko buruzagiak beldurtzeko eta limurtzeko politika zaharra erabiltzen dute, beren oinarri soziala utz dezaten. Eta horretan laguntzeko eskuin ustelenetik datozen hainbat hautagai dauzkate alderdian.

Borroka da garaipenaren giltza

Ezkererako biraketa masibo hori herri langilearen onurarako benetako eraldaketa batean gauzatu dadin gakoa borroka soziala da. Azpi-



tik bultzatu ziren borroka, greba eta protesten zerrenda luzea izan zen uztailaren 1eko tsunamia eragin zuena, nahiz eta sindikatuetak eta MORENAko buruzagi askok pasibotasuna agertu. Milioika pertsonak hartu dute parte azken urteetan borroketan: 132 gazteen mugimendua, magisteritzako greba eta mobilizazioak, maquiletako eta San Quintineko nekazarien paroak, narkoaren aurkako autodefentsen eztanda, gasolinazoaren aurkako martxak edo Mega proiektuen aurkakoak... Bereziki aipagarria izan zen Ayotzinapako 43 desagertuek eragindako protestak, gobernu hiltzaile baten aurkako samina lehererrarazi baitzuen.

Hauteskunde hauetako emaitzek herria egoerarekin zein gogaiturik dagoen erakusten dute. Jasaten dugun biolentziaren gorakada Mexikoko kapitalismoaren deskonposaketaren eta oligarkiaren politiken ondorio zuzena da. 30 milioi

pertsonek baino gehiagok bozkatu zuten AMLOren alde ames gaizto honekin amaitzeko.

Ikasleak altxa dira

Iraileko lehen egunetan UNAMeko ikasleak, beste unibertsitate batzuetakoekin batera indar handiz altxa dira “porro” deituriko talde ultrak eta faxistak eskoletatik kanporatzeko. 39 eskola preparatorio eta fakultate baino gehiagok bozkatu dute demokratikoki asanblada masiboetan 24 eta 72 orduko paroak egitea.

Irailaren 5ean 100 mila ikasle kontzentratu ziren UNAMeko erretoretzaren aurrean. Mobilizazio hauen eskakizunak erasoak salatzetik haratago joaten ari dira. Lehen garaipena gisa 18 erasotzaile kanporatzea lortu ondoren, mobilizazioak jarraitu egin dute arazoaren errora doazen aldarrikapenekin. Horrek argi uzten du hauteskundearen emaitzen oinarrian zegoen

konfidantza eta borroka giroa eta nola kurtso hasieran esnatu den.

Soilik herriak salba dezake herria

Espektatiba oso handiak daude MORENAREN hurrengo legegintzaren baitan. Hainbate sufrimenduren ondoren, gauzak aldatzen hasteko esperantza dago. Era berean, AMLOk enpresarien sektorearekin duen gertutasunak susmoak sortzen ditu mobilizazioaren buruan daudenen artean. Hezkuntza Erreforma indargabetzearen promesa —magisteritzako borrokaren aldarrikapen nagusia— era berean Aireportu Berriaren eraikuntzaren inguruan posizionatzeari uko egitearekin batera ematen da.

Hurrengo aldian mugimenduak indartu egin beharko du. Langileen eta gazteen antolakuntza handitu beharra daukagu, eskola, kolonia eta lantoki guztietan ezkerreko alternatiba kontsekuente bat altxaz, kapitalista handien interesei aurre egiteko.



Catalunya, 2018ko Diada

Kalean lortuko dugu langileon, gazteon eta herriaren errepublika!

Preso politikoak askatu!

ESQUERRA REVOLUCIONÀRIA
Catalunya

Hiru hilabete igaro dira PP gobernutik kanporatu eta Pedro Sánchez Moncloara eraman zuen zentsura mozioetik. Hala ere, Catalunyaeko eskubide demokratikoen eta nazionalen kontrako errepresioak aurrera darrai. Preso politikoak espetxeraturik jarraitzen dute epaiketaren zain eta erbestean dauden buruzagiak jazarrita daude, epaitegien mehatxupean.

Hori gutxi ez eta, PP eta Ciudadanos inpunitate osoz antolatzen ari dira histeria espainolistaz beteriko kanpaina erasokor bat, Catalunya barruan zein kanpoan. Are gehiago, jazarpena eta eraso fisikoa xaxatzen ari dira preso politikoaren askatasunaren aldeko begizta horiak

jartzen ari direnen aurka. Ofentsiba atzerakoi hori kapitalismo espainiarraren izaera atzerakoian zein 78ko erregimenean erroturik dago, bertatik irtendako estatu-aparatua frankismotik zuzenean datorrelarik.

Ahalegin etsiak “normaltasuna” eta bake soziala ezartzeko

PSOEren gobernuak Consellers presoak Catalunya hurbiltzeko hartutako erabakiak eta Torraren eta Pedro Sánchezen arteko harremanek distentsio irudi faltsu bat sorrazi dute iritzi publikoan.

Gobernua aldatu zenez geroztik, PSOEren idazkari orokorra eta bere kabineteko hainbat kide bereziki ahalegindu dira Catalunya buruzko elkarrizketa orotatik kanpo uzten autodeterminazio eskubidea,

preso politikoak berehala eta kargurik gabe askatzea edo erbestera-tuen itzulera. Praktikan, oraindik ere indarrean dago PP eta Ciudadanos independentismoaren aurka ireki zuten kausa orokorra, PSOEren buruzagiek baimendu zutena.

Ematen du Espainiako ezker parlamentarioak interes handia duela bake soziala berreskuratzeko. Pablo Iglesias eta Alberto Garzónek txek zuri bat eman diote Pedro Sánchezi balizko koalizio gobernu baten inguruan itxaropen handiak hauspotuz, inondik ere sistemaren mugetatik aterako ez dena, argi gertatu den bezala.

Eskuin katalanistaren eginkizuna

Burgesia espainiar zein katalanak errepublikari dioten amorrua ez da

zerutik erori. Jakin badakite Errepublika masa borrokaren bidez gauzatuko balitz, horrek bidea irekiko lukeela krisi iraultzaile bat pizteko. Catalunyaeko herritarrek, halako garaipena lortuz gero, ez lukete inondik ere onartuko murrizketak eta austeritatea mantenduko lituzkeen gobernu bat.

U1aren eta U3ko greba orokorraren ondoren, burgesia espainiar eta katalanaren jokabideak helburu bakarra izan du: krisi iraultzailea ixtea. Baina haien estrategiak huts egin du hainbat mailatan herri katalanaren mobilizazio eta borondatari esker.

Gertaera horiek agerian utzi dute PdeCATen politiko burgesen estrategia. Haientzat independentzia beti izan da arreta murrizketen politikatik apartatzeko kontsigna bat, burgesia espainiarrarekin prebendak nola banatzen dituzten eta ustelkeriarako txokoak negoziatzen duten bitartean.

Torrak deklarazio batzuetan “Estatu espainiarrari eraso egin” edo “Errepublikaren alde borrokatu” bezalako aldarrikapenak egin ditu, sektore independentista zabaletan bere politikekin dagoen deskontentua baretzeko helburuarekin. Baina hortik haratago planteatu duen gauza bakarra gobernuarekin eta Estatuarekin “itundutako erreferendum” bat negoziatzea izan da. Aldi berean, uko egin dio Felipe VI.aren aurka Catalunya etorri zenean

mobilizazioak antolatzeari, CDRak eta ANC eta Omnium-en oinarri zabalak eskatu bezala.

Inork uste al du Estatu espainiarrak, Felipe VI.etik hasita, epaileek, fiskalek, militarrek eta poliziek borra-kolpeak, gomazko bolak edo espetxea alde batera utziko dituztela orain herri katalanaren eskubide demokratikoak eta sozialak asetzeko?

Langileon, gazteon eta herriaren errepublika katalanaren alde!

Catalunyaeko askapen nazionalaren aldeko mugimenduaren barruan, betidanik izan dira bi joera, klase interes ezberdinekin. Alde batetik, milioika gazte, langile eta erdi mailako geruzetako sektore handiak, errepublikaren alde jo ta su aritu garenak. Bestetik, burgesia eta eskuin katalanaren sektoreak, gutxiengoa direnak baina botere instituzional eta ekonomiko handiak dituztenak. Betidanik interesatu izan zaio mugimendua kontrolpean edukitzea, azken batean burgesia espainiarraren politika berberak aplikatu ahal izateko.

Benetan lortu nahi baditugu Catalunyaeko askapen nazionala eta soziala, mugimenduaren zuzendaritza kendu behar diegu burgesiaren sektore horiei. Argi utzi behar da ez dugula na-

hi errepublika bat berdin jarraitzeko, baizik eta herriaren eta langile guztien aldarrikapenak eta beharrei erantzuteko behar dugula. Horixe da langile klase katalaneko hainbat sektore gehiago borrokara erakartzeko modu bakarra. Sektore horiek, nahiz eta krisiak kolpatuak izan eta eskuinaren politika atzerakoiak eta errepresiboak arbuia-tu, *Procés*arekiko mesfidatiak dira PdeCATen buruzagien aldetik eraso sozialak, murrizketak eta mespretxua bakarrik jaso baitituzte.

Esquerra Revolucionària-k dei egiten du urrats bat aurrera eramateko eta ezkerreko fronte bakarra osatzeko, CUP, CDR, ANC eta Omnium-en militantzia, mugimendu feminista, ikasleen erakundeak, klaseko sindikalismo borrokariarekin batera, langileon, gazteon eta herriaren aldeko errepublika katalanaren alde, herriaren mobilizazio masiboan oinarrituz.





Euskal preso eta iheslariak etxera!

Errepresiorik eta mendeku politikarik ez!

EZKER IRAULTZAILEA

Ginebran maiatzaren 3an eta Kanbon maiatzaren 4an ETAK behin-betiko desgitea iragarri izanak eta PPren gobernua erori izanak itxaropen berriak piztu ditu, Estatuko arduradun politikoei presoak Euskal Herrira gerturatzeari buruz egin-dako adierazpen ugariak direla eta. Adierazpen horiek urteetan kalean egindako borrokaren emaitza dira.

Edonola ere, gerturatzearen aldeko adierazpen horien atzean dagoena, hau da, PSOEren gobernuak presoak banaka Euskal Herritik gertu dauden espetxeetarako ekartzeko iragarri duen plana, Mariano Rajoyren gobernuak otsailean egin-dakoan oinarritzen da. Pedro San-

chezek iragarri du lehenengo eta behin 70 urtetik gorakoak eta larriki gaixo daudenak (20 baino gehiago) mugiaraziko dituela, baina barne ministroak zehaztu du bi irizpide hartuko direla kontuan. Fernando Grande-Marlaskak zehaztu duenez, osasun egoeraren eta adinaren irizpideak ez dira automatikoki aplikatuko gerturatzea lortzeko, eta beste faktore batzuk hartuko dira kontuan, preso bati neurri berria aplikatu baino lehen: "Ez da lekualdatze kolektiborik egongo. Guztia modu indibidualizatuan egingo da, kasuak banaka aztertuz", azpimarratu dute espetxeetatik.

Barne ministroarentzat, irizpide horien artean daude jasotako zigorra, betetzeko falta den denbora eta

kartzela barruan presoak izandako jarrera. "Erabakigarriagoa izango da presoak indarkeria baztertzeko erakutsi duen jarrera eta kartzelan ondo portatu izana, 70 urte beteak izatea baino" azaldu dute Kartzela Erakundeetatik. Era berean, onartzen dute pisu handia izango dutela delituek eta kondenek: "Neurria ez zaie aplikatuko hilketak dituzten presoek edo preso nabarmenak". Baldintza horien guztien atzean ezkutatzen dena PSOEren gobernuaren eta EAJren koldarkeria da, PPko eta Ciudadanoseko eskuinaren aurrean, ez dira ausartzen euskal presoek kolektiboari ezarritako salbuespen neurriak errotik kentzen eta milaka senitartekoren sufrimendua rekin bukatzen.

Etixeraten datuen arabera, azken urtea benetan gogorra izan da: une honetan 241 preso daude espainiar estatuan, 51 estatu frantziarrean eta 1 Portugalen. 26 senitartekok 10 istripu jasa dituzte dispertsioak eraginda; larriki gaixo edo gaixotasun sendaezinak dituzten 22 preso daude eta azken 8 hilabeteetan 3 euskal preso hil dira espetxean. Gainera, %90a lehen graduan dago.

**Errepresioarekin amaitzeak
zapalkuntzarekin amaitzea
esan nahi du**

Arazoa da egoera hori eragin duen faktore politiko nagusiak indarrean jarraitzen duela. Espainiar estatu aparatua erakutsi du betiko politika errepresiboekin jarraitu nahi duela, eta are gogortu egin nahi dituela protesta sozialari erantzun eta 78ko erregimena mantentzeko. Urriaren 1eko errepresioa Catalunyan edo Altsasuko gazteen kasua horren erakusle garbiak dira. Pedro Sanchezen gobernuak ez du adierazpenik egin Mozal Legea indarretik kentzeko, ezta Estatuaren agintaritzan dauden frankista onartuen aurka ezer egiteko. Babestu egiten ditu.

Burgesiak, PSOEko ordezkariak eta EAJk, PPk eta Ciudadanosek bezala, ondo dakite guztiaren gainetik ezin duela atzera pauso txikiena eman mobilizazio sozialari erantzuteko orduan, horrek geroz eta mehatxua handiagoa suposatzen baitu beren pribilegioen aurrean. EAJk inork baino garbiago du hori. Esandako hitzen gainetik, Ertzaintza indartzen ari da mugimenduari aurre egiteko eta preso berriak hartzeko.



Ekainaren 16an Iruñean ziurrenik hiriko historian izandako manifestazio jendetsuena izan zen, arrazoi beragatik apirilaren 14an izandakoa baino handiagoa. Euskal Herri osotik, Catalunyatik eta estatuko leku askotatik 150.000 pertsona baino gehiago bertaratu ziren Altsasuko gazteak aska ditzaten eskatzeko. Amaierako komunikatuan, gurasoek kontinente guztietatik heldutako nazioarteko elkartasuna eta manifestazioan parte hartu izana eskertu zuten: "Kataluniatik, Madrilatik, Gaztelatik, Aragoitik, Galiziatik, Extremaduratik, Andaluziatik etorri da jendea, penintsulako herrietatik, herri solidarioak".

Iraganean PSOEren gobernuak izandako esperientziak itxaropenak zapuztean oinarritzen dira,

eta horrek kaleko mobilizazioen indarrean arreta jartzera behartzen du. Presoen eskubide demokratikoen aldeko borrokak, ezinbestean, bat egiten du errepresioaren aurkako borrokarekin, zeina modu sistematikoan aplikatzen baitzaio langile klaseari eta gazteriari, gure eskubideen alde edo autodeterminazio eskubidearen alde borrokatzen dugunean. Ezker Abertzaleko zuzendaritzak ardura handia du borroka norabide horretan eramaten. EAJren egindako itunek ez dute eskubiderik lortuko eta ez diote amaiera emango zapalkuntzari.

**Masen kaleko borroka
da bide bakarra!**

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldzkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281
Twitter: @EHSozialista - @EzkIraultzailea • Facebook: Ezker Iraultzailea - Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

Franko hobitik ateratzea ez da nahikoa

Estatu aparatutik kanporatu behar dira FRANKISTAK!



PABLO ALCÁNTARA

Pedro Sanchezen gobernuak mar-txan jarri ditu Francoren gorpuzki-nak Erorien Haranetik ateratzeko pausoak. Neurriek PPren eta Ciudadanosen oposizioa eragin dute, pentsatzekoa zenez. Halere, esan-guratsuen Estatutik aparatuen sek-tore zabal baten desafiozko jarre-ra izan da. Aktibo dauden ehunka militarrek manifestu publiko bat

sinatu dute general faxistaren iru-dia eta bere “ondarea” goraipatuz.

Militar kolpistak atzo, militar faxistak gaur

Uztailaren 21ean hainbat komu-nikabideetan “Franco Bahamonde Generalari errespetuzko” manifestu bat agertu zen ehunka milita-rrek sinatua. Dokumentu horretan Franco “general leialtzat” har-

tzen dute, Fronte Popularraren eta Gerra Zibilaren aurrekaria izan zen 1934eko Asturiaseko altxamendua menperatu zuela esanez. 1936ko uztailaren 18ko kolpe faxista justifikatzen dute, komunismo inter-nazionalak erasotzeko eta setiatu-rik zeukan Espainiaren aurrean be-harrezko ekintza gisa. Gaineratzen dute Francori buruz esaten ari de-na “ezker politikoaren kanpaina bat dela Espainiako Historiatik men-

Justizia diktaduraren biktimetzat!

de erdia ezabatze” eta, horrela, “egungo Nazioaren lurraldea dese-gitea” ezkutatzeko saiatzeko.

Manifestu hori sinatu dutenen artean daude Alberto Asarta, Na-zio Batuen Libanoko misioaren buru ohia; Emilio Pérez Alamán, Canariaseko Aginte Militarreko buru ohia; Juan Aparicio Hernández Lastras, Armadako Pertsonaleko Agintearen buru ohia; Eduardo González-Gallarza, Aireko Armada-ren buru ohia eta Antonio González-Aller, Erregearen Cuarto Mili-tarreko buru ohia. Militar guzti ho-riek Francoren alde agertzeaz gain, prest agertu dira Catalunyako eta Euskal Herriko erabakitzeko eskubi-dea gauzatzearen aurka esku har-tzeko ere. 2013an Juan Chicharrok “aberriak demokrazia baino gehiago balio duela” esan zuen eta Catalun-yan esku hartze militarra egitea jus-tifikatu zuen. Gizon hori, manifes-tuaren bultzatzaileetako bat izateaz gain, egun Francisco Franco Funda-zioaren egungo presidentea da, eta lehenago erregearen laguntzaile eta Errege Guardiaren burua izan zen.

Inpunitatean geratu den diktadura krudela. Trantsizioaren lohiak

Manifestuan, militarrek Francoren irudiaren inguruan gezurra esateaz gain, kontzienteki ezkutatzeko dute di-

ktadura frankista benetan izan zena eta Erorien Haranak esan nahi duena. 1936. eta 1952. urte artean, 200.000 pertsona baino gehiago fusilatu zi-tuen Estatu frankistak, gehiengoa epaiketarik gabe edo geroago epaite-gi militarren iruzurretan; horietatik, 50.000 baino gehiago gerra amaitu on-doren. Diktaduraren amaierara ar-te (hain zuzen ere, 1975eko irailaren 27ko azken fusilatueta arte) eten-gabe atxilotu, torturatu, kartzelara-tu eta heriotzera kondenatu zituen militante antifrankistak.

Argi utzi behar da Erorien Ha-rana ere ez zela “adiskidetzaren monumentu” gisa eraiki, faxismoa eta Francoren irudia goraipatze-ko eraikuntza mesianiko gisa bai-zik. Esklabu moduan lan egin zu-ten 20.000 preso politikok eraiki zu-ten. Eta bertan lurperaturik dauden 33.000 baino gehiagotatik, 12.410 identifikatu gabe daude: beren fa-milien baimenik gabe eramandako errepublikarren gorpuzkinak dira, 491 hobi komunetatik eta hilerrie-tatik atera zituztenak.

Noski, militar horiek duten inpu-nitate eta gobernuak horiek zigor-tzeko erakusten duen koldarkeriak jatorri bat du. Hain zuzen ere 70eko hamarkadan PSOEko eta PCEko buruek, Catalunyako eta Euskal He-rriko alderdi nazionalista burgese-kin batera (EAJ eta CiU), eginiko kontze-sio politiken ondorioa dira. Egun Pa-

blo Casadok, Albert Riverak eta Pe-dro Sanchezek hain gogotsu defendatzen duten “Trantsizioa” deritzonak kriminalen inpunitatea eta biktimen umiliazioa ezarri zuen. 1977ko Am-nistia Legearekin eta Konstituzioare-kin, errepresio frankistan parte har-tu zuten militar, polizia eta epaileak blindatu zituzten, eta horietako inor ez zuten epaitu, ez UCDrekin ezta ondoren PSOErekin ere.

Pedro Sanchezek aurkezturiko neurriak diktaduraren biktimen eta milioika langileren artean ba-besa lortuko du. Halere, erabaki hori onartezinak diren kontzesioekin ba-tera dator, esaterako, diktaduraren krimenen arduradun direnak epai-tzeko bidea irekitzeko uko egitea.

Egia, erreparazioa eta justizia berrezarri behar da biktimekin eta beren familiekin, behar diren erre-kurtso material eta giza baliabideak erabiliz hobietatik ateratzeko, bik-timei hiletak eskaintzeko eta fami-liak indemnitzatzeko. Kale eta mo-numentuetatik ikur frankista guz-tiak kendu behar dira, eta Franco familiak lapurturiko ondare guz-tia desjabetu. Eta batez ere, estatu aparatutik faxistak eta atzerakoia-kanporatu behar dira.

Ondo dakigu hori ez duela egin-go 78ko erregimenaren aldeko ino-lako gobernuak. Herriarren, langile klasearen eta gazteriaren mobiliza-zioaren fruitua izango da.



500 pertsona baino gehiago Kataluniako herriari elkartasuna erakusteko mitin internazionalistan

Uztailaren 17an, 500 lagun baino gehiago elkartu ziren Kataluniako errepublikaren aldeko mitin internazionalistan, Esquerra Revolucionàriak, Sindicat d'Estudiants eta Langileen Internazionalerako Batzordeak (CIT/CWI) antolatuta, Bartzelonan Cotxeres de Sants-en. "Urriaren 1eko agindua bete behar da" lelopean, Eskoziako, Irlandako, Ingalaterrako, Galesko, Kataluniako, Estatu espainiarreko eta Euskal Herriko iraultzaileek hartu zuten hitza argi eta garbi esateko gatazka honetan Kataluniako herria ez dagoela bakarrik.

Historiak erakutsi du herrien benetako askatasuna gehiengoaren zapalkuntza eragiten duen sistemaren aurkako horrokarekin bakarrik lortuko dela: sistema kapitalistaren eta bere estatu apartatuaren,

justiziaren eta erakundeen aurka. Hori argi geratu zen Eskoziako, Irlandako eta Euskal Herriko egoeraz aritu ziren CIT/CWIkideen ahotan, oinarrizko puntu hori aldarrikatu baitzuten. Hori horrela, ukaezina da Kataluniako herriak 78ko erregimena eta oligarkia kapitalista kolokan jarritz jotatutako paper bikaina.

Azken hilabete hauetan ikusi dugu Kataluniako askapen mugimendua bitan banatuta dagoela: eskuin katalanistak ordezkatzaren duen gutxiengoa, herriaren iraultzaren beldur dena, eta bestetik gehiengoa, 78ko erregimena, autoritarismoa, errepresioa eta murrizketak suntsitu nahi dituen. Azken hori da ordezkatzaren gaituena eta Esquerra Revolucionàriak eta Ezker Iraultzaileak aldarrikatzaren dutena: urriaren 1eko

agindua praktikara eramanda eta Kataluniako errepublika sozialista eraikiz aske egin gaitzakeen bakarra.



Mobilizazioaren indarrak Geroa Bairen desalojo saiakera geldiarazi du!

Maravillas aurrera!

URTZI REGUERO

Abuztuaren 17an goizaldeko 5ak aldera, Nafarroako Foruzaingoak eta Polizia Nazionalak Iruñeko Maravillas gaztetxea desalojatu zuten, Geroa Bai-ren eta Nafarroako Gobernuaren aginduz. Desalojoan poliziak erabilitako errepresioak eta indarkeriak hainbat zauritu utzi zituen eta zenbait gazte identifikatu zituzten. Ez zen inolaz ere modu bake-tsuan egin, Geroa Baik esan bezala.

Gazteen eta herritarren erantzuna, ordea, irmoa eta eredugarria izan da. Mobilizazio baten ostean gaztetxea berriro irekitzea lortu zuten egun berean eta horren ondoren Geroa Baik desalojoa eteten zuela adierazi zuen. Ez iritziz aldatu zuelako. Benetako aldaketa baten alde egiten duten gazteek jasotako babesaren aurrean, bere burua atzera egitera beharturik ikusi zuelako baizik.

2017ko udazkenean zabaldu zuten bere ateak Iruñeko alde zaharreko gaztetxe berriak. Helburua hirriari aisi eta kultura alternatiboa eskaintzea zen. Aldi motz honetan, gobernuaren jabetzan 20 urte luzetxutsik egon den jauregia berpiztu dute gazteek euren lanaren bidez, eta hirira zabaldu dute autogestioan

eta antolakuntzan oinarritu den gune honen ekinbidea.

Maravillas gaztetxearen aurkako eraso honek gogora ekartzen ditu UPNren aginduz Iruñeko Jai Alai gaztetxea hustu zuteneko irudiak. Edonola ere, ez da aurreneko aldia EAJk (Geroa Bai Nafarroan) gazteek eraikitako gune autogestionatuen aurka egiten duena. Horren adibide dira, besteak bestek, Bilboko Errekalde auzoko Kukutza eta Etxarri gaztetxeak, hurrenez hurren 2011n eta 2016an hustuak, joan den urtean Gasteizko Errekaldeor auzoaren aurkako eraso, etab. Argi dago eskuinari (euskaldunari zein espainiarri) ez zaiola interesatzen gazteek, langileen seme-alabek, kapitalismoak eskaintzen duen aisi kitenaren aurrean alternatibak eraikitzea eta aldaketaren alde antolatzea eta ekitea.

Eskuinak aitzakia berbera erabili ohi du gaztetxeak desalojatzeko. Beti sortzen dira proiektu berriak urte luzez albo batera utzi diren eraikinetan gaztetxe bat sortzen den momentutik aurrera. Kasu honetan, Geroa Baik demagogiaz oroimen historikoa erabili nahi izan du, desalojoari mozturro aurrerakoia ezartzeko. Bertan oroimenaren institutu bat egiteko plana plazaratu du. Gaz-

te eta langileontzat hain sentikorra eta garrantzitsua den auzi bat erabili nahi izan du, zalantzak sortzeko eta gaztetxea defentsarik gabe uzteko. Inor gutxi engainatu du ordea.

Jakina da institutu horrek egun ez duela inolako proiektu konkreturik, ezta aurrekonturik ere. Geroa Baik buruek ondo dakite honelako proiektu baten tartean ere hauteskundeak daudela. Argi dago desalojoaren erabakiak EAJren bestelako interes politikoak ezkutatzaren dituela. Mugimendu sozialen aurka gogor jotzen dakiela erakusteko modua izan da, datorren hauteskundeetara begira, aliantza politikak zabaltzeko, batez ere PSNri begira. EAEn eroso gobernatu ohi du PSErekin.

Geroa Baik bere horretan jarraitzen du, eta desalojoa planteatzen du irtenbide bakar gisa. Iruñeko udalean UPN eta PSNrekin bozkatu du gaztetxea desalojatzaren alde. Nafarroako EHBilduk, Podemosek, Orain Mugituzek eta Ezkerra-Izquierdak ezin dute inolako konfiantzarik izan EAJak zuzentzen duen Geroa Bairengan. Ezker Iraultzailetik Maravillas gaztetxeari babesik handiena helarazi nahi diegu. Gaztetxearen aldeko borroka ezkerreko politiken eta benetako eraldaketa baten aldeko defentsa da.



Lan prekarietatearen eta gehiegizko esplotazioaren ondorioz, bi pertsona hil dira Gasteizen egun bakarrean

ELOY VAL DEL OLMO

Abuztuaren 28an Gasteizen bi lan istripu gertatu ziren, bi langile heriotzara eramanez. Correosen lan egiten zuen 39 urteko emakume bat Jundizeko poligonoan motorrarekin banaketa lanak egiten ari zela, furgoneta batek harrapatu zuen eguerdi aldera. Emakumeak 2014tik behin-behineko lan kontratuak kateatzen egiten zuen lan, eta azken kontratua duela gutxi sinatu zuen. Bere lankideek azaltzen zutenenez, “hain motor txikia, atzean horrelako karga edukita, ez da egokia Jundiz bezalako toki batean banaketak egiteko, hainbesteko trafikoa egonik”.

Egun berean Michelineko beste langile bat zendu zen, Antonio Miguel Parra. Joan den igandean lan istripu larri bat jasan zuen mantenu lanak egiten ari zela, 2016ko urrian beste lan istripu batean Jorge Romero hil zen tokitik gertu. Langilea bakarrik ari zen lan egiten garabiarren saskiak harrapatu eta bularra zapaldu zionean.

Antonio Miguel Parra azken bi urteetan Gasteizko lantegi honetan hiltzen den laugarren langilea da. Kasu honetan langile finkoa zen. Horrek erakusten du segurtasun faltak eta gainesplotazioak kontratatetako nahiz enpresa nagusiko langileei berdineragiten diela. Horregatik da beharrezkoa elkartzurik borrokatzea mul-

tinazionalak inposaturiko prekarie-tatearen aurrean. Langileok istripu hauekin ordaintzen ditugu patronalaren irabazi lodiak, mugarik ez duen irabazi gosea. Ezin liteke prezio izugarriagorik ordaindu. Dagoeneko 43 dira Euskal Herrian urte honetan lanean hil diren langileak. Istripuak ez dira zorte txarraren ondorio, gure kontura irabaziak pilatzeko enpresarien gosearen ondorio baizik!

Prekarietatea da hiltzailea

Formakuntza falta, kontratu zaborrak, patronalaren presioa eta lan erritmo azkarrak dira beren lanpostuetan hiltzen diren langileen eten-gabeko jario honen benetako arra-



zoia. Beren hitzekin eta argi baino argiago azaldu diote prentsari langileek egunero bizi duten egoera:

“Michelineko fabrikako R tailerreko langilea naiz. Ez dira istripuak deklaritzen. Lan gaixotasunak ez dira existitzen. Langileak tailerrera sutura puntuekin joaten dira, hezur-hausturekin eta mota guztietako lesioekin. Konplikatu da mediku zerbitzuak artatu zaitzaten, istripuaren partea eskatzen baitute eta hori askotan zaila da lortzen. Hori bai, istripua beti izango da zure errua jarduera metodoak ez betetzeagatik. Horiek be-

tetzeak ekoizpenera ez iristea esan nahi du. Ez iristeak egunero nagusiaren jazarpena jasotzea dakar. Eta denboran zabaltzen bada kalera-tzeko arrazoia izaten da (...) Ez jaso istripurik baina utz ezazu bizitza lan erritmo horiekin, azken batean hemen ez baita lan gaixotasunik existitzen”.

Heriotzak salatzeak eta Arabako patronalari eta Michelin eta Correoseko zuzendaritzei beharrezko neurriak har ditzaten eskatzeko, Michelineko langileek 24 orduko paro egin zuten, eta 500 langile baino gehiago bildu zituen kontzentrazioa

fabrikako ate aurrean. Correosen 5 minutuko paroak egin ziren —gure ustez erabat eskasa da hori— eta kontzentrazio bat Correosen eta Arabako Enpresa Sindikatuaren aurrean, abuztuaren 31n.

Indar bakarra dago gai dena lan prekarietatearekin amaitzeko eta enpresak behartzeko segurtasun neurriak hartzera eta ekoizpen erritmoak jaistera: langileon indarra antolatzen garenean eta borrokatzen dugunean. Inork ez digu inoiz ezer oparitu. Lortu dugun guztia gure antolakuntzaren eta borroka sindikal eta politikoaren ondorio izan da.

Sektore sozio-sanitarioan borrokak aurrera darrai

OIER NAVARRO
*Sektoreko langilea,
LABeko afiliatua eta Ezker
Iraultzaileko militantea*

Langileon lan baldintzak egunez egun okerrera egiten dute, albiste-gietan kontrakoa esaten badigute ere. Eta hori erakusten dute sektore sozio-sanitarioan azken hilabeteetan burutzen ari garen borroka ugariak.

Joan den ekainean, Miñanoko Albertia erresidentzia hartu duen

Grupo la Saleta Care Armonea enpresako zuzendaritza berriak sukaldeko lau langile kaleratu zituen. Enpresak ezin justifika litezkeen motiboak aurkeztu ditu, esaterako, ezin izan ditutela langileak berak hautatu. Benetako arrazoia ordea, egunero lan baldintzak gehiago okertu nahi dituztela da, langile berriak erresidentzien estatutu mailako hitzarmenean lan egitera behartuz. Hori ezin zien kalera-tu dituzten langileei aplikatu, su-brogazioa dela eta.

Gorbea erresidentzian ere mobilizazioak egin dira. Joan den uztailaren 26ean kontzentrazio bat egin zen, arbitrarioki kaleratu izan den langile bat berriz onartzeko. Lan errendimenduaren beherakada jarraitua eta gogozkoaz salatu zuten. Ezagunak ditugu jada, mota honetako argumentuak eta ezkututzen duten errealitatea. Horregatik protestan langile gehiagoren kontratazioa eta baldintza duinak eskatzen ziren, bertako langileentzat eta zentro honetako erabiltzaileentzat.

Errealitate hori erakusten duen beste kasu bat Erandioko Sanitas Loramendikoa da. Hilabeteko greba egin dute, lanaldiekiko kategoria profesionalen diskriminazio jarraitu bateko egoeran 15 urte eman ondoren. Edota Debararren Osa-kidetzako PACSen kasua, non aurrera eramanez nahi den berregituraketak Ermuan eta Eibarren itxierak suposatuko lituzkeen. Arabako etxez etxeko laguntzako langileek ere greba mugagabea aurreikusten dute, ekainean gehiengoak kalera ateratzearen alde bozkatu zuenean. Otsailetik paroak deitu dituzte urteetan zehar jasaten ari diren soldata izoztuak salatzeke.

Sektore sozio-sanitarioan egoerak okerrera egiten du egunez egun. Etengabeko aldaketak jasaten dira lanaren antolakuntzan langileekin



ezer kontsultatu gabe, asistentzia kalitateak ikaragarri egin du okerrera, langileak falta dira departamentu guztietan.

Eguno baldintza prekarioak pairatzen ditugun langile gisa, ematen ari diren borroka guztiak elkartzeari ekin behar diogu. Ezin dugu isolaturik geratu daitezen

utzi. Hitzarmen duin baten alde mobilizatzen hasi behar dugu eta bide horretan beharrezkoa da sindikatuak plataforma bat osatzea langileok demokratikoki borroka plan bat antolatu eta planifikatzeko eta horrela galtzen joan garen eskubideak berreskuratzen hasteko.

EAErako estatus politiko berria

EAJrekin eginiko inolako akordiorik ez gaitu Euskal Herriaren erabakitze eskubidera hurbilduko

Kurtsoa hastearekin batera, EAE-rako Estatus Politikoa Berriaren eztabaida izan da alderdi politiko guztietako buruen hizpide nagusia. Eztabaida horrek Euskal Herriko langile eta gazteentzat berebiziko garrantzia duen auzia planteatzen du: zein dira askapen nazio-

nal eta sozialerako bidea, programa eta estrategia?

Eskuinarekin kolaboratzearen porrota

EHBilduko zuzendaritzako kideek argi utzi dute independentziarako

eta subiranotasunerako bidea, ezinbestean, alderdi nazionalista guztien batasunetik pasatu behar duela, izan eskuinekoak izan ezkerrekoak. Beraien arabera, hori da bide posible bakarra, eta pixkanaka egin behar da, etapa errealistetan eta behar diren adina etapetan. Lehen urratsa gutxieneko akordio bat bilatzea da. Horretarako, legegintzaldi honetan EAJrekin posizioak hurbildu dira, EAErako estatus politiko berri baten inguruan akordio batera iristeko. Estatus politiko berrirako proposamena egitean, Ezker Abertzaleak lehen aldiz planteatu du Espainiako konstituzioa marko gisa, EAetik abiatuz Estatu konfederatu bat eratzea, euskal nazioa eta erabakitze eskubidea aitortu ditzan eta Estatu

Antolatu zaitez

EZKER IRAULTZAILEAN

Euskal Herria Sozialista baten alde borrokatzeko

2. ORRIAN JARRAITZEN DU

- Kanpora 155a! Preso politiko guztiak askatu. Kanpora Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilararen indarrak Euskal Herritik eta Kataluniatik.
- Lan eta pentsioen kontraerreformen indargabetzea. Jubilazioa 60 urtetara soldataren %100arekin eta errelebo kontratuak gazteentzat.
- 1.100 eurotako gutxiengo soldata eta 35 orduko lanaldia astean, soldata murrizketarik gabe.
- Etxe kaleratzeak debekatzea. Etxebizitza publikoen parkeak alokairu sozialekin, bankuen eskuetan dauden etxebizitzak desjabetuz.
- Pribatizaturiko zerbitzu publikoak bermunizipalizatzea, langileak mantenduz eta ugarituz eta lan eskubideak errespetatuz.
- LOMCE eta 3+2 kanpora. Kalitatezko hezkuntza publikoa, demokratikoa eta doakoa, haurtzarotik unibertsitatera arte.

- Osasungintza publiko duin, doako eta unibertsalerako eskubidea.
- Benetako elkartasun konkretua errefuxiatuekiko: kuporik eta barneratze esparrurik ez. Atzerriko Legearen indargabetzea eta CIEak ixtea.
- Adierazpen, bilera eta antolakuntza eskubideak osorik bermatzea. Mozal legearen indargabetzea.
- Bankaren eta sektore estrategikoen nazionalizazioa, pertsonak erreskatatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Autodeterminazio eskubidearen alde, Catalunyan, Euskal Herrian eta Galizan. Errepublikak sozialista katalanaren alde, eta errepublikak sozialista federal baten alde, Estatu espainiarra osatzen duten herrien eta nazioen batasun libre eta boluntarioan oinarritua, horrela erabakitzen badute.